

## **BALIO PROPOSAMENAK**

South African Hygienist Euskal Herrian sortutako ONG bat da, lau higienistek sortua. Gure proiektuak bi langile mota dauzka. Alde batetik, langile lokalak (Euskal Herrian lan egiten dugunok) eta beste aldetik, langile internazionalak (Kenian lan egiten dutenak).

Gure proiektua Mfangano uhartean dagoen umezurtz-etxe batera bideratuta dago, hau Kenian kokatzen da. 30.000 biztanle inguru daude, gehiengoek arrantzan aritzen dira.

Uharte honetako biztanleriaren %30a baino gehiago HIESA gaixotasuna pairatzen dute. Osasun asistentzia eta prebentzio maila eskasiaren ondorioz. HIESA gaixotasunaren ondorioz guraso asko hiltzen dira eta hori dela eta umezurtz asko daude. Horregatik, gure proiektua umezurtz-etxe honetara bideratu dugu.

Etxe honetan 30 ume inguru daude, 12 urtetik beherakoa. Goizetan ikastolara doaz (9-10 urterarte) eta arratsaldeetan umezurtz-etxera doaz.

Gure proiektuak duen helburu nagusia, Keniako umezurtz-etxearen aho eta hortzen higiena hobetzea da. Baina badauka ere azpi helburu batzuk esaterako, hezkuntza eta bizi kalitatea hobetzea.

Proiektu hasi aurretik Kenia inguruan lan egiten dute beste erakundeei laguntza eskatu genein. Horretarako, nola lan egiten zuten eta orokorrean haien helburuak ezagutu genituen. Bere ideiak jakinda gure enpresa beste enpresa guztien artetik ezberdintzen gaituen ezaugarria pentsatzen hasi ginen. Guk gure bezeroei lana errazteko ikastaroak eta liburu bat informazio osoarekin emango diegu.

Gure enpresaren urte osoko eskaintzak dauzkagu partaide nahi izatekotan. Boluntario moduan etortzekotan, hainbat eskaintza izango dituzue eskuragarri: lo egiteko eta higienerako beharrezkoak diren leku eta material egokia eta egunean 3 jatordu. Gure enpresak gastuei aurre egiteko, datozen boluntarioei tasa zehatz bat eskatuko diegu. Tasa 10€ eguneko izango da. Esan behar da, ez dela beharrezkoa titulazio ezta prestaketa espezifikorik hona jotzeko. Eskatzen dugun gauza bakarra, lan egiteko, laguntzeko eta parte hartzeko gogoak izatea. Gurekin lan egiterakoan, eroso sentitzen zaren arloan lagunduko duzu, hala nola, klaseetan laguntzen, sukaldean, txarлак, jokuak prestatzen edo higienezaren arloan parte hartzen.